

JARDUNALDI EKOSOZIALISTAK

ADOLFO “TXIKI” MUÑOZ ELAko Idazkari Nagusia

A.- **KRISI POLITIKOA.** EBn, Estatuan eta bertan. Gobernuek desberdintasunak areagotzeko joeran laguntzaile dira.

1. **EBko ezkerrek Greziako ispiluari begiratu beharko lioke.** Kasu honek erakusten ditu EB honen mugak, non 10 estatutan eskuin muturra indar politiko nagusia den. Esan gabe doa nahi dugula eredu neoliberal hegemonikoarentzako alternatibak plazaratzen dituzten indar politikoek arrakasta izatea. Proiektu europarra oso baldintzatuta dago politika neoliberal berberak nonahi ezarri eta kapitalismoak inposatzen duen debaluazio programatikoa gerta dadin.
2. **Gure iritziz, ezker politikoa European “borondate krisi” larri batean sartuta dago.** Nahi baduzu bide bati jarraitzen diozu. Borondaterik ez bada, ordea, sistemak jartzen duen lehen oztopoarekin estropoz egingo duzu. Aldaketa politiko eta soziala erakundeetara iristea baino askoz gehiago da. Aldaketa politiko eta soziala izango bada haren aldekoek ezin dituzte eraldatze sozialaren ardatz nagusiak alde batera utzi. Helburua ez da iristea, aldaketa bera baizik. Neoliberalismoari aurre egin behar zaio, oposizio gisa; oposizio izateko borondatea adierazi behar da.
3. ELA bat dator ostiralean **Elisabeth Peredok** egin zuen gogoetarekin: **“Ezkerrek hainbat esparrurekin duen harremana konpondu behar du”** (emakumea, klima, demokrazia, sindikalismoak, gizarte-mugimenduak...).
4. **Ezker “ekosozialista”ko militanteak gara; elkar elikatu behar duen espazio batean ari gara militatzen.** Hori da gure ikusmoldea. Gure ustez, ezker politikoak sindikalismo erreibindikatioa eta gizarte-mugimenduak behar ditu; alderantziz, noski, gure sindikalismo erreibindikatioak ezker politikoa behar du. Bada, ez dago halako dialektikarik. Ez da aski estrategia instituzional bat izatea; are gutxiago egungo abagunean. Ezker politikoak kapitalismoari hegemonia irabazteko lehia baztertzen badu, eskuin politiko eta ekonomikoari, dialektika hori ez dago. Dialektika hori gabe ez dago ezer elkar-elikatzerik. Dialektika hori gabe ez dago eraldatze prozesurik.
5. **Bilatzen dugun harreman dialektiko horrek baldintza batzuk ditu.** Nagusia, erabateko autonomian oinarrituta eraikitzea. Autonomia beterik gabe ez da posible.
6. Gaur batik bat **hauteskundeetan arrakasta izatea** bilatzen da. Agian “adituen” aholkuekin txundituta geratu eta sinetsi egin dute “zentro politikoa” bilatzea dela hauteskundeetan garaitzeko gakoa. Esaten diete botoak hor daudela, benetan ez dagoen zentro batean; garaiotan gero eta eskuinago kokatzen da ustezko zentro hori.
7. Kezkatuta gaude **European sozialdemokraziari** zer gertatu zaion ikusita: Itun neoliberalak bere egin eta posizio politikoetan atzera egin zuen. Gidoi neoliberalak eskatuta, pedagogia egiteko aukera ere baztertu egin zuen. Koalizioan agintzera iritsi da, proiektu neoliberalak gidatuta. Orain “sozialdemokratak” ari dira espainiar Estatuari galdegiten doikuntza eta erreforma estrukturaleri eusteko.

8. Kontua da **eskuin politiko eta ekonomikoa eroso** dagoela. Aste honetan Argia aldizkariak bere azalean hala jaso du: **“Kanpaina epelean, boterea goxo”**. Titular ona. Likidoa ezin zaio solidoari gailendu; beste kontu bat da ezkerak bere diskurtsoarekin hunkitu egin behar duela. Prekaritate laboral eta sozialaren kontakizuna indartsua da, baina nekez agertzen da. Ez dugu ikusten borondaterik neoliberalismo hegemonikoari bestelako programak kontrajartzeko.
9. Ez dira soilik posizio eta proiektuak baztertzen. Okerrena da **alternatiboa dena ere alboratu egiten dela**; alternatibak ez dira plazaratzen; edozein aldaketa izateko esperantzak lausotu egiten dira; politikan zinezko aldaketak nahi dituzten hautesleak etsita geratzen dira. Gainera, **azkenean hauteskundeak galdu ere egin daitezke; eta garaipena lortuta ere, ez da boterea irabazten**. Sistemak ziurtatuko du bere interesak ez direla auzitan jarriko, horretarako aliantza egokiak paratzen dituelarik.
10. Adibidez, **¿zer dela eta desagertu da ia Eusko Jaurlaritzak euskal ordezkariak sindikalariekin egin duena?** Jaurlaritzak sindikalismo erreibindikatiboa suntsitu nahi du. Ez al da gai garrantzitsua? Ezikusiarrena egin ote daiteke Thatcherren estiloan ELAren eta LABen aurka egiten ari diren eraso hau? Gure ustez, ez litzateke hala izan beharko.
11. Ezkerra ez da soilik hitzekin eraikitzen; ezta hauteskunde kanpaina distiratsu eta erakargarriekin ere. Oinarri sozial eta sindikal aktiborik gabeko ezkerak, jendarteko sektoreen eta langile-klasearen eskariak biltzen dituen dialektikarik gabeko ezkerak ez du ez orainik, ez etorkizunik. Zer da eraldatze soziala eta aldaketa politikoa? Zeintzu dira ibilbide horretarako aliatuak? Gure ustez hori da funtsezko eztabaida.

B.- KLIMAREN KRISIA ETA SINDIKALISMOAREN EGINKIZUNA

1. ELAk asko ikasi du klima-aldaketaren inguruan militatzen ari diren beste taldeengandik. Ikasketa hori lagungarria da **geure trantsizioa** egiteko. Izan ere, sindikalismoak ere gai honekiko trantsizio bati ekin behar dio, klima-aldaketa gure kezken erdigunean koka dadin.
2. **Klima-aldaketa errealitate bat da.** Joan den abuztua 137 urtetik hona ezagutu den hilabeterik beroena izan da; tenperaturak erregistratzen direnetik, alegia. Aldaketa hori hasi da, eta gizakiaren ekintzak eragiten du; ondorioak atzeraezinak dira. Arazo honen neurria sistemikoa da, eta berari aurre egiteko modu guztiz berria beharrezkoa da. **Klima-aldaketa ezin da mugimendu sindikalaren agendatik kanpo** geratu.
3. **Parisen izan zen COP 21 goi-bilerak**, gobernuen propaganda gorabehera, ez du helburu loteslerik finkatu. Gobernuen esku utzi du erabakia, borondatezko helburuak ezar ditzaten. Bada, iragarri diren konpromisoekin batez besteko tenperatura COP21ean finkatutako helburuak aise gaingaituko ditu.
4. **Zientzilari guztiek** -multinazionalen soldatapean dauden negazionistek izan ezik- **ondorioztatu** dute aldaketak edonola ere gertatuko direla. **Eztabaida da nola biziko ditugun.** Ez dago zalantzarik: bizitzeko eta lan egiteko gure era zeharo aldatuko da, zerbait egin zein ez. Okerrena, ordea -ondorio hau ere behin betikoa da- ezer ez egitea da.
5. Kapitalismoak aldeztzen duen **amairik gabeko hazkunde ekonomikoa** ezin da erreferentzia izan, behinpehin klima-aldaketak benetan kezkatzen bagaitu.

6. **Produkzio, ugaltze, banaketa eta kontsumo eredu** aldatzea ezinbestekoa da. Jendarte-eredu berri bat, zentzu zabalean. Eta azaldu beharra dago interes kontrajarrien arteko lehia bat dagoela oinarrian, botere-borroka bat alegia. **Kapitala metatzea vs bizimodu duina.** **Kapitalismoak** beti antolatuko ditu politikak zeharo ez aldatzeko ematen dituen arrazoi edo aitzakiak. **Naomi Klein**ek zioenez, *“katastrofea saihesteko aukera hobea emango liguketen ekintzek -jende gehienaren onerako lirakeen horiek- mehatxuak dira gure ekonomia, prozesu politikoak eta hedabide gehienak guztiz kontrolpean dituen elite txiki batentzat”*. **Hala da: borroka bera dugu. Klase-borroka da, eta honi klima-aldaketaren aurkako borroka txertatu behar diogu.**
7. **Gure erronka da aldaketarako botere soziala eraikitzea**, aldaketa bidezko norabidean joan dadin: **justizia klimatikoa eta justizia soziala**. Sistema aldatzea, klima alda ez dadin. **Hau klase-borroka da.** Orain erabaki behar da baliabide urriak -ura, energia, lur emankorra- lortzeko guda bortitza izango den, azken orduko neurri desesperatuekin eta giza-eskubideak eta gizarte-babesa alde batera utzita, ala kontrara, trantsizio ordenatu eta justu bat, egungo langileak errespetatu eta enplegu berri duin eta iraunkorra sortuko duena.
8. **Trantsizio hori planifikatu beharra dago, baina kapitalismoak ez du nahi.** Kapitalismoak agerian utzi du bere neurritz kanpoko irrikarekin edozer suntsitzeko gauza dela; baita planeta ere, aukera emanez gero. Kapitalismoaren eta berarentzat lanean ari diren gobernuen kezka bakarra etekin-tasa da.
9. **Mugimenduen borrokak bateratu behar ditugu; klimatikoa eta soziala, borroka sindikalarekin, feminismoarekin.** Helburua, erdigunean bizitzaren iraunkortasuna kokatzea, “bizitza ona”.
10. **Erronka hau mugimendu sindikalari zuzentzen zaio.** Borroka sozial honetan gure bizitza dago jokoen. Helburu horretarako sindikatuok zaharberritu egin behar gara, berraktibatu eta gure ekintzari norabide berria eman.

C.- ELAREN “ENPLEGU BERDEEN” PROPOSAMENA: 106.400 lanpostu. ELAk egindako ikerketan batik bat jendarteak behar dituen eta ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorrak diren jarduerak aztertu ditugu. Begibistakoa da trantsizio honetan jarduera batzuk asko murriztu beharko direla eta erabaki horiek enpleguan eragina izango dutela. Hor kokatzen dugu trantsizio justuaren kontzeptua eta sindikatuak egindako ikerketa.

1. **Trantsizioa sustatzeko sektore iraunkorretan.** Egungo eredu produktiboari norabide berri bat emate aldera: etorkizunean energia urria izango da, eta klima-aldaketa nagusi.
2. **Ezinbestekoa da herri-botereen inplikazioa eta ekintza.** Exijitu egin behar zaie, eurei zuzenduaz gure proposamen eta mobilizazioak, aldaketak eragingo dituen marko juridiko egoki bat. Aldaketak tokiko eta nazioarteko mobilizazioaren fruitu izango dira; parte hartzeko planifikazio bat galdegiten dugu.
3. **Genero** kontuan berariazko neurriak behar dira emakumeek hartzen dituzten enplegu berde duinen portzentajea handiagoa izan dadin.
4. **Gizarte-babesa finantzatu** behar da -trantsizioa bidezkoa izan behar da-; horretarako ezinbestekoa da **erreforma fiskala**. Esaterako, Hego Euskal Herrian Europako batez besteko presio fiskalarekiko diferentziala 7.800 milioi eurokoa da.

5. **Sektore eta enpleguak zehaztu eta kuantifikatu ditugu:**

1. **Eraikinen birgaitzea.** Urtean EAEn 20.000 eta Nafarroan 4.000 etxebizitza birgaituz gero 18.000 eta 3.500 enplegu berri sortuko lirateke, hurrenez hurren.
2. **Energia sektorea,** %100eraino energia berriztagarriak eta fracking gabekoak iritsiz gero 20.000 eta 6.300 lanpostu, hurrenez hurren.
3. **Mugikortasuna.** Petrolioarekiko eta kotxe pribatuarekiko menpekotasuna gutxitu, AHTren moduko megaegiturak alde batera utzita (hau garestia da, ez du merkantziarik garraiatzen eta pertsona gehienen garraioa ez du konpontzen). 2.000 eta 500 enplegu.
4. **Hondakinak.** Murrizteaz gainera bilketa selektiboa egin behar da: 7.000 eta 900 lanpostu.
5. **Agroekologia, arrantza eta basoen kudeaketa iraunkorra.** Sektoreok globalizazioak itota daude. Ekoizpen ekologikoa... Nezazaritzako produkzioa berlokalizatu behar da, zirkuitu laburretan merkaturatuaz. Gaur nekazaritzako produktuen %5 besterik ez da tokikoa.
6. **Industria.** Diseinua, produktu iraunkorrak, birziklajea...
7. **Uraren kultura berria.** Ura aurreztu eta modu arrazionalen kudeatu...
8. **Berlokalizazioa, zerbitzu publikoak eta lanaldiaren murrizketa.** Saltoki handien ordeztu denda txikiak sustatu, eta kalitatezko zerbitzu publikoetan inbertitu (hezkuntza, osasungintza, berdintasuna, menpekotasuna, gizarte-zerbitzuak). Halaber, 35 orduko lanaldia ezartzea.

Guztira, 106.400 enplegu. Ipar Euskal Herrirako egin zuen antzeko txosten batean **Bizik guztira 10.000 enplegu** kuantifikatu zituen.

Ezin amaitu **ALTERNATIBA sarean lan egiteko izan zen esperientzia** aipatu gabe. Guztiok ikusi ahal izan genuen gure bizitzaren onerako produkzio eta kontsumo era eta moduak badirela. Lan horri eutsi egin behar zaio. Gainera, **Karta Soziala** ere hor dugu, arazo eta alternatibak jendarteratzeko tresna egokia.

Bilbo, 2016ko irailaren 25a